

## Martin Ugalde: "Gaiak aukeratzen nau ni; ez nik gaia"

J.L.

*Argia*, 1.044. zk., 1985-01-20: 34-35.

Martin Ugalde –nahiz eta jende askok eta askok jakin ez– euskal letretan dexente ibilitako gizona dugu, duela zenbait urte arte Venezuelako herbestean (bere "*beste* aberria") luze egondakoa eta hemen bizi denetik Hondarribian pisu polit bat dauka. Orain argitaratu berri duen "Mantal urdina" honez gain 1961an beste bat argitaratu zuen "Iltzaileak" izenez, *borroka-kontuak* berak dioen bezala. Horrezaz aparte "Amatxo gaiso dago" antzerkia, "Umeentzako kontuak" eta "Itsasoa ur-bazter luzea da" kontakizunak ere badauzka argitaratuak. Horiezaz gain, badauka beste antzerki bat Venezuelen inprimatzen ari zenean inprimategiarekin batera kiskali zena. "Gurpegin aspaldi gertatu zen". Oraingo ipuin-liburu honek batez ere zahartzaroa gaitzat daukaten ipuinak bildu ditu. Gai hori zergatik aukeratu zuen izan zen jakin nahi genuen gauza bat. "*Nik nire gurasoak ikusi ditut zahartzen eta antzeman dut zer nolako larritasunak pasa dituzten; gertutik ikusi dut zahartzaroa zein gauza tristea den kasu gehienetan eta horrexegatik idatzi dut ipuin-bilduma hau zahartzaroaren inguruan*". Zahartzaroan sentitzen den bakartasuna da guztiaren erdigunea, bakartasun horretan aurrera jo ezinean begiak atzera bueltatu beharra sentitzea eta norbere bizitzan zehar hain inportanteak izan diren mugarriak nola geratzen diren bakartasun horretan.

Gaia aukeratzen oso hil ala biziko arloa da Martinen literaturgintza, "*nik zerbait idazteko gaiak jo behar nau, nik sentsibildade bat daukat eta gaiak ni aukeratzen nau, ez nik gaia*". Berak pertsonalki dituen kezka aztertzeke balio duen tresna bezala jotzen du Martinek literatura. Alde horretatik, eragin sozial bat daukaten gaiak dira Martinek gehien erabili ohi dituenak, nahiz eta oraintxe hasia izan horretaz konturatzeko. Horregatik bere obran zehar gehien aukeratu dituen gaiak oso tristeak izan dira, bera kezkatzen duten gaiak ere halakoak direlako. "*Baina nik kezka horietan zerbait pentsatu ahal izateko idatzi behar izaten dut. Kezka baten aspekto bati buruz zerbait konkretua idazten hasten naizenean orduantxe hasten zaizkit gauzak argitzen. Idaztea niretzat liberazio bat da*".

Martinek insistentzia bereziz esan zigun literaturan ere lanak enkargatuz egin aurretik ere ordaintzea gauza ona dela, beken eta gainerako laguntzei erreferentzia argia eginez. Izan ere, berak "Mantal urdina" ipuin-liburua Gipuzkoako Diputazioak emandako beka bati esker idatzi du, bestela inoiz ez zukeela idatzi aitortzen duelarik. "*Nik gaztetandik erabaki nuen idaztetik bizi nahi nuela eta Venezuelatik hona etorri nintzenean enkarguen menpe jarri nintzen. Erderazko lanak enkargatzea erraz lortzen nuen. Euskarazko enkargurik, aldiz, ez zidaten egiten eta horrexegatik eskertu behar diot Gipuzkoako Diputazioari eman zidan aukera hori*".